

SARRERA

Bostgarren urtez, Gipuzkoako Eragozpen Taldeko Bidea Helburu lantaldeak Indarkeria-eza Aktiboari buruzko Jardunaldiak antolatu genituen. Aurreko urteetan egin genuenari jarraiki, aurten ere liburuxka bat argitaratu dugu, jardunaldiotako edukiak ahalik eta toki eta jende gehienera iristeko asmoz. Argi utzi nahi dugu, alabaina, liburuxkan ez daudela jardunaldietako mahai-inguru eta hitzaldi guztiak, liburuxkak eduki beharreko orri kopuruak ez baitigu den-dena jasotzeko aukerarik ematen.

2005 urteko Jardunaldietan Jean Mari Muller-en idatzietan oinarritutako “Apunte” batzuk banatu genituen, eta bertan hau genioen: “gatazken konponbidea “edo gatazken transformazioa ekimen zibilak martxan jarriz lor daiteke: hauen bidez, alde batetik, borroka gizatiarragoa izatea lortuko dugu, eta bestalde, elkar ulertzea eta konfidantza giroa sortuaz denen artean, alde guztien artean, pertsona eta herri bezala zer nahi dugun erabakitzeo aukera sortuko dugu”. Ideia horrekin jarraitzen dugu. Liburu honen hasieran Sustengu Batzordearen hitzak txertatu ditugu, urtero indarkeria-ezan oinarritzen diren pertsona eta taldeen lekukotza eskaini nahi izan ditugu.

Gure gizarteak beldur eta itxaropen uneak bizi zituen 2006ko azaroan. Zabaldur zen prozesuan gure bake, askatasun eta berradiskidetzeko... gogoak jokoan zeuden, eta jokoan zegoen ere benetako eskenategi demokratiko bat lortzeko aukera, guztiontzako eskubide zibil eta politikoak eskuratzeko aukera. Zapuzteko beldurra genuen, lortzeko itxaropena. Kontestu honetan burutu ziren Jardunaldieak. Baina beldurra eta itxaropena afektu pasiboak dira: badirudi dena beste batzuen esku dagoela, herritarrek zer esatekorik edukiko ez balute bezala, sare sozialak, gatazkak iraun duen hamarkadetan zehar jasandako eraginarengatik, elkarrizketa eta erabakitzeo ekimen eta espazioak eraikitzeo gaitasunik izango ez balu bezala. Guzti horrek hainbat galdera eragin zizkigun: Gizarte presiorik gabeko prozesu bat atzeraezina al da? Eta ondorioz bake prozesu sakona, denboran iraungo duena eta osoa izango al da?

Gatazka gainditzeko prozesu baten baitan elkarrekin bizitzeko modu berri bat sortzen ez bada, gatazkei heldu eta hauek ulertzeko modu berriak topatzen ez baditugu, justizia, denon artekoa, politika... ulertzeko modu berriak topatzen ez badira bake prozesua herren gelditu zitekeen, eta horrela gertatu da azkenean. Balore hauek ezin dira gutxi batzuk goitik eraikitako gizarte ingeniariatza konplikatu baten emaitza izan soilik, behetik egin behar den sorkuntza lana baizik.

Ireki zen prozesuari ekarpen xumea egin asmoz, 2006ko Jardunaldien ekitaldien bidez hiru gai nagusi landu nahi izan genituen.

Lehenik, gai zail, neketsu, polemikoa... baina era berean gakoa dena, gure herriaren etorkizuna aztertzean present dagoen eta egongo den gaia: biktimen lekua eta jarrera. 2003 urteko jardunaldietan “Berradiskidetzeko, biktima multilateralak eta euskal gatazka” gaia landu nahi izan genuen. Ez genuen gure helburua lortu, une askotan tensioak gainezka egin zuen eta eztabaida polarizatu egin zen. Ekitaldira gonbidatutako pertsonak Euskal Herritarrak ziren. 2006. urtean gonbidatu genituen pertsonak, beraien proposamen eta oinazea gurekin konpartitu eta alderatzeko gonbidatu genituenak, ez ziren hemen jaio . Errealitate ezberdinetatik zetozen eta anitzak izan ziren kontatu zizkiguten egoerak. Errespetuz entzun genituen, beraien esandako hainbat gauzekin ados egon ala ez.

Donostiara ekarritako esperientziak lehenik guri eragin ziguten zirrara: biktimak dira, galdu dituzten senide eta lagunak gabeziak sortutako sentimentua eta beraien samina bake bide bilakatu nahi dutenak, elkarriketa eta justizia bilatzen dutenak. Erresuminak eta biolentziak erresumin eta biolentzia gehiago ekartzen dute, eta kate hori hausteko borrokatzen duten pertsonak dira. Borroka egiten dute botere handiagoa lortu nahian beraien sufrimentua erabili nahi dutenen aurka. Borrokatu egiten dute, badakite, ikasten ari dira, mundua ezin dutela soilik biktima bezala ikusi, eta ezin dutela mundua epaitu samina hierarkia batetan neurtu, pisatu eta trukatu (diru truke, boterearen truke....) daitekeen zerbait balitz bezala. Beraien lekukotzak erresistentzia eta sormenaz mintzo zaizkigu: patuaren, gorrotoaren, manipulazioaren aurrean erresistentzia; eta beste lotura batzuk sortu beharraz, elkarrekin bizitzeko beste modu batzuren sorreraz.

Jardunaldietan landu genuen bigarren gaia gatazkak gizatiarrago bilakatzeko ahalegina izan zen. Hau da, gatazka izan dira, badaude eta izango dira, pertsona guztiak zorionez ez garelako molde berekoak, baina nola lor dezakegu gobernatuak garen adiskide-etsaiaren gerra logika horretatik urruntzea? Zein da etenik ez duten gatazka eta gerrei aurre egiteko modu eraginkorrena? Indarkeria-eza aktiboa ekintza publikorako esperimentazio esparru zabala izan dela eta oraindik badela pentsatzen dugu, beste balore batzuk dituen bidea, balizko beste aukera batzuk sortzen dituen, gizarte gaiekiko beste harreman bat, egin eta pentsatzeko beste moduak. Gure herrian izan diren desobedientzia zibileko esperientzia anitz eta aberatsen inguruko hausnarketa ere egin nahi izan genuen, elementu positiboak azpimarratuaz baina baita tresna eta dinamika hauek helburuak lortzeko izan dituzten itzal, muga, zailtasun eta gabezietaz eztabaidatuaz ere. Gatazken humanizazioa gaiarekin loturik ere "Gerraren kontrako hausnarketa eta ekintza elementuak" hitzaldia izan zen Jardunaldietan. Gasteizen burututako bi hitzaldien edukiak ere irakur ditzakezue, eragozpen fiskala eta Palestinari buruzkoak hain zuzen ere.

Azkenik, habian zen bake prozesuaren inguruko itxaropen, kezka eta proposamenak elkarbanatzeko gune bat sortu nahi izan genuen gure webgunean eta topaketa ireki bat antolatu genuen ere. Topagune hauek ez ziren oso emankorrak izan, ez zuen jende askok parte hartu, baina ahalegin horretan gure antzeko kezkak dituzten pertsona eta taldeak topatu genituen, eta gure indarrak elkartu ditugu herritarren partaidetza sustatuko duen konponbide prozesu baten alde. Liburu honetan bake prozesuaren aldeko ekimenen manifestuak argitaratu nahi izan ditugu.

Liburu honetan 2006ko azaroan burututako Jardunaldien zenbait emaitza aurkezten dizkizuegu, hausnarketa eta eztabaidarako baliagarriak izango direlakoan.

Bidea Helburu
www.bideahelburu.org
www.noviolenciactiva.org